



ASTIGARRAGAKO UDALEKO PLANGINTZA ENERGETIKOA

LABURPEN
EXEKUTIBOA

2015ko AZAROA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturako proiektua,
Tokiko Energiaren aurrezpena eta eraginkortasun
energetikoa bultzatzeko diru laguntzen testuinguruan

LABURPEN EXEKUTIBOA

Testuingurua

Energia kostuaren gehikuntzak, honek dakarren ondorio ekonomiko eta sozialekin, eta **planetaren berokuntza globalak**, eskariari doitutako eredu energetikoaren aldaketaranzko aurrerapausoak ematea behar beharrezkoa egiten du, energia fosilekiko dependentzia gero eta txikiagoa eginik.

Energia kostuak Administrazio Publikorako aurrekontu karga garrantzitsuak dira eta, arrazoi honengatik, energia kontsumoa murrizteko modu eraginkorrek garatzea beharrezkotzat jotzen da. Honez gain, energia horniketari ere ekin behar zaio, sistema eraginkoragoak eta energia berriztagarrien erabilera sustatzen lagundu dezaketen erabakien bitartez.

Hau guztia Astigarragako plangintza energetikoaren lanketa garatzeko oinarri gisa hartu da, zeinak Udalak Euskadiko Energia Erakundeak diseinatutako **“Alkateen Itunerantz”** ekimenarekin bat egitearekin hartutako konpromisoari erantzuna ematen dion.

Astigarragako Udalak 2013an **II. Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren** onarpenarekin berretsitako iraunkortasunarekiko bere konpromisoa indartzen du. Izan ere, Plan honen lerro estrategiko batek energia eremuan plangintza bat lantzeko beharra jasotzen du.

Proiektuaren irismena

Udalerriko ekipamenduetako eta argiteria publikoko **energia kontsumoaren eboluzioak** eta ondorioz CO₂ isurienak, 2010-2013 epealdian beheranzko joera izan du, pertsonako kontsumo totalen jaitsiera %25,5ekoa izan delarik. Honetan eragina izan dute eraginkortasuna hobetu eta kontsumoak optimizatzeko burutu diren ekintza desberdinek.

Kontsumoen optimizazioa **bereziki nabarmena izan da argiteria publikoaren kasuan**. 2009an auditoretza egin zen eta geroztik, bertan jasotako neurri zuzentzaileak ezarri dira. Horien artean aipagarriak dira koadroen taldekatzea eta udalerriko puntu guztietan erreguladoreak jarri izana, kontsumoen murrizketa adierazgarria lortzeko aukera eman dutelarik.

Arrazoi hau dela eta, oraingo honetan **fokua udal ekipamenduen plangintza energetikoan** jartzea egokitzat jo da. Udal titulartasuna duten ekipamendu guztien analisia egin eta neurriak proposatu dira. Jarraian aipatzen diren ekipamenduen inguruko proposamen zehatzagoa egin da baita ere: Kultur Etxea, Herri Eskola, Udaletxea, Kiroldegia eta Zaharren egoitza.

Eraikuntza hauek kontsumo altuenak dituzte, Astigarragako eraikuntzen kontsumo elektrikoaren %64,7a, gas kontsumoaren %92,3a eta kontsumo totalaren %78,4a suposatzen dutelarik.

Ekintzen eskema

Guztira **16 ekintza** definitu dira, bi lerro estrategikoetan egituratuta, jarraian aurkezten den bezala:

LERROA	KODEA	EKINTZAK
1go LERROA: ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA	1.1	Galdara eta hozte-sistema zaharrenak eta eraginkortasun txikienak dituztenak berritu, erabilgarri dauden teknologia eta ekipoen bitartez.
	1.2	Klimatizazio igorle-sistemen eraginkortasuna eta sektorizazioa handitu, eraginkorrak ez diren sistema edo hobekuntza aukerak dituzten eraikuntzetan.
	1.3	Isolamenduak sendotu eta klimatizazio eta UBS (ur bero sanitariorako) sistemetarako erregulazio sistemak jarri.
	1.4	Eraikuntzetako argiztapen instalakuntzetako osagai ez eraginkorrak aldatu, kontsumo baxuko osagaiak jarri eta kontrol sistemak gehitu.
	1.5	Existitzen diren eraikuntzetako inguratzaile termikoak hobetu eta neurri bioklimatikoak, aireztapen naturala eta eguzki-babesleak gehitu.
	1.6	Irizpideen eskuliburua idatzi eta ezarri, zeinak udal barneko erabilera izan eta azpikontratatuaren kontrola egingo duen. Honen helburua eraikuntza berriek eta birgaitutakoek A eta B motako gutxienerako energia ziurtagiria lortzen laguntzea da, hurrenez hurren.
	1.7	Kontsumo handiena duten eraikuntzetan energiaren monitorizazio sistemak ezarri, honekin batera energia alorreko jardunbide egokien plangintza osatuz.
	1.8	Energiaren telekudeaketarako sistema adimentsuak ezarri kontsumo handiena duten eraikuntzetan.
	1.9	Prebentzio-mantenuaren ezarpena bermatu, baita RITE-ren eskakizun guztiak, eraikuntza publiko guztietan dauden klimatizazio eta ur bero sanitarioko instalazioetan.
	1.10	Egungo garbiketa kontratuan edo kontratazio berrietan garbiketa langileei zuzendutako jardunbide egokiak sartu.
	1.11	Udaleko zerbitzu guztientzako eta enpresa publikoentzako energiaren kudeaketa zentralizaturako software bat ezarri, kontsumoen kontrola eta kontabilitate energetikoa baimenduko duena.
	1.12	Udal teknikariei zuzendutako formakuntza jarraiturako programa burutu, eraikuntza publikoetako energia instalazioen erabilera eraginkorraren alorrean.

LERROA	KODEA	EKINTZAK
2. LERROA: ENERGIA BERRIZTAGARRIAK	2.1	UBS kontsumo handienak dituzten udal eraikuntzetan eguzki sistema termikoak instalatzen jarraitu.
	2.2	Posible den udal eraikuntza guztietan eguzki energia fotovoltaikoa progresiboki ezarri.
	2.3	Eguzki sistema termiko eta fotovoltaikoen funtzionamendu zuzena eta eraginkorra bermatu.
	2.4	Erregai fosilak erabiltzen dituzten galdera zaharrak berritu, biomasazko galderak jarritz, bero-banaketarako sare txikiak sortu.

Modu osagarrian eraikuntzen araberako Jarduera programa osatu da, non eraikuntza bakoitzean burutu beharreko ekintzak zehazten diren, estimatutako kontsumoen eta CO₂ isurien murrizpenaren analisia eta ekintza bakoitzeko kostuen analisia eginez baita ere.

Ebaluazioa eta jarraipena

Udaleko Plangintza Energetikoaren jarraipena, ezarpenari dagokionez, **TA21eko TEParen ezarpen mailaren ebaluazioaren** testuinguruan burutuko da. Ebaluazio hau Udalean finkatua dagoen prozesua da eta urtero burutzen da Udalsarea 21eko udalerrietzako komuna den metodologian oinarrituz.

Era berean, adierazleen bidezko Planaren jarraipena ondoren zehazten diren elementuak kontutan hartuz burutuko da:

- Eraikuntza bakoitzerako jarraipen adierazleak
- Neurrien araberako jarraipen adierazleak
- EAeko tokiko jasangarritasun adierazleen sistemako adierazleak